



GAZTEEN **berria** **ikasgela** SARIKETA



Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunaz erreportaje sakon bat idazten ari zaretela? Ikasbidaia-aren bideo kronika egin dutela azken ikasturtekoek?

Sakelakoaren erabilerari buruzko mahai inguru bat izango dela laster ikastetxeko irratia estudioan?

Ikasgeletatik at lan horiek aurkeztu, zabaldu, eta saria irabazteko aukera duzue orain BERRIA Ikasgelaren bidez.

Izan ere, ikasturtean zehar landu dituzuen halako lanak guztion eskura jarri nahi ditu BERRIA Ikasgelak. Ikasle gazteen begiradak hain zuzen ere, aktualitateari, inguruari, munduari buruzkoak... Begirada horiek ekarri nahi ditu BERRIAren komunitatera.

Aurkezten diren lanen artean interesgarrienak argitaratuko ditu BERRIA Ikasgelak, eta guztien artean zozketa bat egingo da, **Urruñako Wow parkera** joateko. Ikasgela osoarentzat izango da saria.

Zer lan argitaratuko dira?

Gai eta estilo askotako albisteak, gertaerak, galderak edota eztabaidak jorratzen dituzten komunikazio lanei egin nahi die tokia plaza berri honek.

Erreportajeak, kronikak, elkarrizketak eta iritzi artikulua jasoko dira. Idatzizko testuak, audioak nahiz bideoak izan daitezke.

Ikasturte honetan ikastetxeko aldizkarian argitaratu diren artikulua eta sareetan zabaldutako ikus-entzunezko lanak eta aurkeztu daitezke.

Nork har dezake parte?

Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ikasten ari diren ikasleek.

Lanak taldean egindakoak edota bakarka egindakoak izan daitezke.

Nora bidali behar dira lanak?

Lanak **ikasgela@berria.eus** helbidera bidali behar dira.

Nork hautatuko ditu lanak?

BERRIAko erredakzioko talde batek egingo du lanen hautaketa.

Epeak:

Apirilaren 30a izango da lanak bidaltzeko azkeneko eguna. Hautatutakoak maiatzaren argitaratuko dira, BERRIA Ikasgelan. Maiatzaren 17an ebatziko da nor den sariduna, eta maiatzaren 23an argitaratuko da BERRIAN.